

2001ean Euskadiko autonomia-administrazioek eutsi egin zioten finantzaketa ahalmenari, 2000koaren azpitik izan arren.


Euskadiko autonomia-administrazioen zor biziak urritzen jarraitu zuen (%-7,3) eta 2.753 miloi eurora iritsi zen, BPGaren %6,43ra.

2001 urtean, Euskadiko Autonomia Administrazioek (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta udal Administrazioak, euren erakunde autonomoekin eta udalez gaindiko erakundeekin batera) 462 milioi euroren aurrekontu-superabita izan zuten, 2000n baino %5,1 gutxiago, Eustatek emandako datuen arabera.

Finantzez besteko sarrerek eta irteerek (%3,3 eta %9,4, hurrenez hurren) hazkunde desberdina izan dute eta hori izan da aurrekontu-superabita urritzeko arrazoia da. 2001ean finantzez besteko sarrerak 9.799 milioi eurora iritsi ziren eta gastuak 9.338 milioi eurora eta hortik dator aipatu dugun superabitaren edo finantzaketa ahalmenaren 462 milioiko gutxitzea, hau da, BPGaren %1,1ekoa.

Sarrera arruntak %2,54 hazi dira eta gastu arruntak, aldiz, %8,58. Beraz, aurrezki gordina gutxitu egin da; 2000n 2.310 milioi eurokoa izan zen eta urtebete beranduago, hots, 2001ean 1.942 milioiokoa.

Zerga-sarrerak dira sarreren zatirik handiena hartzen dutenak eta horien artean PFEZa eta sozietate-zerga %6 baino gehiago hazi dira (%6,39 eta %6,86 hurrenez hurren), BEZa neurritsuago (%2,45) eta zerga bereziak, aldiz, %4,61 jaitsi dira.



Gastuen arrunten atalaren barruan, %7,17 hazi dira langileria-gastuak, eta %10,36 transferentzia arruntak. Guztira, kapitulu biak %8,9 hazi dira 2001ean, 2000ko %10,5en aldean.

EUSKAL AE-KO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN KITAPEN BATERATUA.2000-2001

milioi euro

	2000	2001	Δ%
SARRERAK GUZTIRA	9.598.760	10.249.297	6,78%
Eragiketa Arruntak	9.366.996	9.604.606	2,54%
-Zerga Sarrerak	8.446.961	8.677.508	2,73%
PFEZ	2.621.296	2.788.922	6,39%
Sozietate-zerga	909.518	971.916	6,86%
BEZ	2.802.243	2.870.783	2,45%
Zerga Bereziak	1.116.338	1.064.825	-4,61%
Udal-zergak	475.022	489.037	2,95%
Bestelako Zergak	522.544	492.025	-5,84%
-Bestelako sarrera arruntak	920.035	927.098	0,77%
Kapital-eragiketak	122.655	195.145	59,10%
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	9.489.651	9.799.751	3,27%
Finantza-eragiketak	109.109	449.546	312,02%
GASTUAK GUZTIRA	9.314.216	10.178.097	9,27%
Eragiketa Arruntak	7.057.285	7.662.886	8,58%
Langileria Gastuak	2.031.276	2.176.838	7,17%
Transferentzia Arruntak	2.555.450	2.820.225	10,36%
Bestelako Gastu Arruntak	2.470.559	2.665.823	7,90%
Inbertsioak eta Kapital-eragiketak	1.481.255	1.674.952	13,08%
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	8.538.540	9.337.838	9,36%
Finantza-eragiketak	775.676	840.259	8,33%

Inbertsioak eta kapital-eragiketak %13,08 hazi dira 2001eko ekitaldian eta hazkunde hori aurreko urtean atal berean izandakoa (%3,47) baino askoz ere handiago da.

Zor bizia 2.971 milioi eurora iritsi zen 2000ko abenduan eta urtebete beranduago 2.753 milioi eurora jaitsi da, BPGaren %6,43 hartu du eta %7,3 jaitsi da.

EUSKAL AE-KO ADMINISTRAZIO PUBLIKOKO DATU BATERATUAK. 2001

milioi euro

	GUZTIZKO BATERATUA	EUSKO JAURL.	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
SARRERA ARRUNTAK	9.604.606	5.344.521	1.533.823	4.851.934	3.082.306
GASTU ARRUNTAK	7.662.886	4.363.709	1.411.283	4.389.598	2.706.274
AURREZKI GORDINA	1.941.720	980.812	122.540	462.336	376.032
KAPITAL SARRERAK	195.145	67.580	41.137	81.761	101.719
KAPITAL GASTUAK	1.674.952	731.545	186.550	446.917	376.992
FINANTZAKETA AHALMENA(+) BEHARRA(-)	461.913	286.847	-22.873	97.180	100.759

ZOR BIZIA (Amortizatzeke 01-12-31)	2.753.477	1.370.175	84.256	824.681	474.365
---	-----------	-----------	--------	---------	---------

Euskadiko Autonomia Administrazioek, guztira, 57.959 pertsona zituzten lanean 2001. urtean, aurreko urtean baino %1,2 gehiago. Merkataritza-sozietateak eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoak barne hartuta, Autonomia Administrazioek 86.431 pertsonari ematen diete lana, hots, 2000. urtean baino %1,92 gehiagori. Horrenbestez, Euskal AEko ekonomiako landun guztien %9,86 ari dira Administrazio horietan.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Javier Aranburu

Tlf:+34-945-01 75 99 Faxa+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es